

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 47/2019 Foru Dekretua, urriaren 22koa. Onestea Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuz, Arabako Foru Aldundiaren sailak finkatu ziren 2019-2023 legegintzaldirako. Zazpigarren apartatuan hauxe xedatzen du:

1. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eginkizun eta eskumen arlo hauek dauzka:
 - Errepideetako plangintza, proiektuak, zaintzea eta ustiapena egitea.
 - Desjabetzeak.
 - Garraioak.
 - Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikitzen zaio Arabako Bideak-Vías de Álava SA foru sozietate publikoa.

Gobernuaren Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuan, Gobernuaren Kontseiluaren abuztuaren 2ko 39/2019 Foru Dekretuak aldatua, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen da, Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza berria sortzeko.

Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza berria sortzeak ekarri dituen aldaketa jaso eta Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzu berri bat sartzearekin berregituratzeko, zerbitzu bakoitzaren aginpidetza eremua mugatu eta birbanatzeko eta Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuan (indarrean dagoena) sartu diren aldaketak bategiteko, testu batean batu behar da sailaren egitura osoa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.2 artikuluan xedatutakoaren babesean, Gobernu Kontseiluari ematen baitio sailen egitura organikoa onesteko eskumena.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauxe onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Jardun arloak

1. Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak, 2019-2023 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenak, xedatzen duenaren arabera, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eginkizun eta eskumen arlo hauek dauzka:

- Errepideak: plangintza, proiektuak, eraikuntza, zaintza eta ustiapena.
- Desjabetzeak.
- Mugikortasuna eta garraioak.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikitzen zaio Arabako Bideak-Vías de Álava SA foru sozietate publikoa.

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan adierazten diren jardun arloetako eginkizunak gauzatzeko eta eskumenak betearazteko, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egituran organo unitate hauek daude, eta denak saileko titularra den foru diputatuaren zuzendaritzapean egongo dira, honekin batera doan organigramaren arabera:

1. Bide Azpiegituren Zuzendaritza; honi atxikita daude:

a) Errepide Zerbitzua.

- Errepideak Hobetzeko Atala.
- Bide Segurtasun eta Ustiatze Atala.
- Topografia Atala.
- Bidezaintza Atala.

b) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

– Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoa.

c) Lege eta Administrazio Zerbitzua.

– Desjabetze Atala.

2. Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza.

a) Mugikortasun eta Garraio Saila.

b) Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzua.

3. artikulua. Atxikipenak

Hona hemen Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikita dauden erakundeak eta sozietate publikoak, bakoitza Erakundeen Erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

ERAKUNDE ZK.	IZENA
181	Arabako Bideak – Vías de Álava SA
179	Arabako Garraio Arbitrajeko Batzordea

4. artikulua. Diputatuaren eginkizun orokorrak

1. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan eta horrekin bat datozenetan foru diputatuei esleitzen zaizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sailari dagozkion eginkizunen eta jarduteko eremuen esparruan araudiak ematen dizkion gainerako beste guztiak ere.

Foru diputatuari dagozkio halaber, diputatu nagusiaren eta Diputatuen Kontseiluaren eskumenak eskuordetu eta deskontzentratzearen ondorioz, foru erakundeek funtzio publikoaren arloan dituzten eskumenei buruzko araudia ezartzen duen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuko 1. eta 3. artikuluetan jasotakoak, foru dekretu honetan ezarritako aldaketak gorabehera.

2. Foru diputatuak sailari atxikita dauden sozietate publikoak zuzenduko ditu, dekretu honetan eta arloko berariazko legeetan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Zuzendarien eginkizun orokorrak

Zuzendariari dagokie 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 75. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzea. Bereziki, honako hauek:

1. Bere gain dituen unitate organiko guztien eta bestelako erakundeen jardunak planifikatu, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea; eta, horretarako, haien barne funtzionamenduaren araubidea ezartzea.

2. Xedapenen proiektuak egitea eta proposatzea, ezarri den jarduteko politikaren arabera.

3. Saileko foru diputatuari laguntza teknikoa ematea hark eskatzen dizkien gai guztietan.

4. Zuzendaritzaren aurrekontua prestatu, proposatu eta kontrolatzea, bidezko diren aurrekontu aldaketak izapidetzea eta gastu programak ebaluatzea.

5. Zuzendaritzako bulegoen barne araubidearen ardura izatea eta zaintzea; eta haren ondusun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

6. Beren saileko diputatuak eskuordetzaz esleitzen dizkien eginkizunak betetzea.

7. Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak

Dekretu honetan arloaren arabera zehazten diren eginkizunetaz gainera administrazio unitateen buruek eginkizun orokor hauek dituzte:

1. Beren ardurapeko administrazio unitateei dagozkien gaiak zuzentzea eta kudeatzea eta beren eskumeneko arloetan ebazpen proposamenak prestatzea.

2. Laguntza teknikoa ematea haien nagusia den zuzendariari eta, behar izanez gero, saileko foru diputatu titularrari, kasuan kasuko unitatearekin loturiko arloei dagokienez.

3. Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena eta jardueren memoria prestatzea.

4. Giza baliabideen hornidurari buruzko proposamenak egitea eta langileen zuzeneko burutzan aritzea, ondoko eginkizun hauek, besteak beste, betetz:

— Ordutegia betetzen dela kontrolatzea.

— Baimenak eta lizentziak kontrolatzea.

— Egitekoak eta lanak banatu eta gainbegiratzea, eta haien erantzukizuna izatea.

5. Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta haren ondasun higigarri eta higiezinak administratu eta zaintzea.

6. Finkatutako helburuak lortuko direla ziurtatzea.

7. Ahalik eta laguntza handiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenari, loturiko eginkizunak bere gain hartuko dituen zuzendaritzako administrazio unitateari.

8. . Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

7. artikulua. Kontratazio mahaia

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailean kontratazio mahai iraunkorra egongo da, eta sailak prozedura irekian, negoziatuan zein murriztuan egiten dituen kontratu guztietan ariko da, bere eskumenei lotuta.

Kontratazio mahaian kide hauek ariko dira:

Mahaiburua:

– Bide Azpiegituren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona, bere zuzendaritzako kontratazioak egiteko.

– Mugikortasun eta Garraio zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona, bere zuzendaritzako kontratazioak egiteko.

Idazkaria: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Mahaikidea: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Mahaikidea: Kontratazioa proposatzen duen zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontu-hartzaitza bere gain dituzten administrazio unitateek izendatuak.

II. KAPITULUA

BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

8. artikulua. Bide Azpiegituren Zuzendaritza

1. Bide Azpiegituren zuzendariari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 75. artikuluan eta kidekoetan zuzendariari esleitzen zaizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagokion eginkizunen eta jardun arloen esparruan arautegiak egozten dizkion beste guztiak ere, aurreko 5. artikuluan ezartzen diren bezala.

2. Gainera, Bide Azpiegituren zuzendariak eskumen zehatz hauek ere badauzka:

a) Bide sarearen plangintza orokorra.

b) Bizikleta bideen sarearen plangintza orokorra, Foru Aldundiko sailekin koordinatuta.

c) Foru Aldundiaren bide sarea hobetzea, modernizatzea, zaintzea eta ustiatzea.

d) Foru Aldundiak egiten dituen azpiegituretarako behar diren ondasunak eta eskubideak eskuratzea desjabetze prozeduraren bitartez.

e) Neguko bidezaintza plana koordinatzea eta planifikatzea urtero.

f) Beste bide azpiegitura batzuen sozietate kudeatzaileak koordinatzea Arabako Lurralde Historikoan.

g) Aldundiko beste sail batzuen eta erakunde publikoen arteko harremanak koordinatzea.

Hori guztia dekretu honen arabera zuzendariak dauzkan eskumenen arabera egin behar du.

3. Gainera, Bide Azpiegituren zuzendariak eskumen zehatz hauek ere badauzka, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren eginkizunen deskontzentrazioa dela bide:

– Errepideen zaintza baimenak ematea, bai eta baimendu gabeko erabilerak eteteko aginduak ere, aplikatu beharreko legeriak ezartzen duenarekin bat etorri.

9. artikulua. Errepide Zerbitzua

Errepide Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrean jasotako programak egiteari, garatzeari eta betetzeari buruzko aholkularitza eta txostenak egitea, eta horri buruzko erabakiak hartzea.

b) Arabako Errepideen Plan Integrala (lurralde plan sektoriala) egiteari, garatzeari eta betetzeari buruzko aholkularitza eta txostenak egitea, eta horri buruzko erabakiak hartzea, bai eta hori ikuskatzea eta aldatzea ere, koordinazio lana eta kontrola eramanez.

c) Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Plana egiteari, garatzeari eta burutzeari buruzko aholkularitza eta txostenak egitea, eta horri buruzko erabakiak hartzea, ziklismo bideak araupetzea dela eta.

d) Foru sareko errepideak eta bizikleta bideak lehenengo aldiz egiteko, aldatzeko, hobetzeko edo zaintzeko proiektuak eta obrak, Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrean eta Arabako Errepideen Plan Integralean ezarriak, planifikatzea, proiektatzea, burutzea eta kontrolatzea, bai eta hierarkian gaineratik daudenek agintzen dituztenak ere.

e) Errepideei buruzko Foru Arauan, eta bizikleta bideei buruzkoan egin beharreko aldaketak eta egunerapenak proposatzea, haiei buruzko txostenak egitea, eta prestatzea.

f) Lehenengo aldiz egin beharreko eta bideak aldatzeko edo hobetzeko proiektuei eragiten dieten hirigintza planeamenduei edota arloko planeamenduei buruzko txostenak egitea, bai eta Errepideei buruzko Foru Araua betetzeari buruzkoak ere, haiek eragiten badiote.

g) Irigarritasunari eta mugikortasunari buruzko azterlanak zuzentzea, egitea eta kontrolatzea trafiko ingeniartzaren ikuspegitik, behar den kasuetan saileko garraioaren arloko arduradunekin lankidetzan arituz.

h) Indarreko legedian zarataren arloan jasotzen diren jarduera guztiak ezarri eta garatzen direla zuzendu, kudeatu eta koordinatzea.

i) Lurralde Historikoko errepideen birsailkapena proposatzea.

j) Sailaren eskumenen esparruan, bide segurtasuneko planak eta programak zuzentzea, kudeatzea eta koordinatzea.

k) Errepideen azpiegitura hobeto erabiltzeko eta bide segurtasuna bermatzeko egiten diren ikerketak, proiektuak eta obrak planifikatzea, bultzatzea, kudeatzea eta koordinatzea.

l) Bide azpiegiturak hobeto aprobetxatzeko eta bideak hobeto kudeatzeko eta ingurune naturalean hobeto integratzeko jarduketak planifikatzea, zuzentzea eta koordinatzea.

m) Bide segurtasunari, seinaleei eta argiei buruzko espedienteak gainbegiratzea eta ebaizpenak proposatzea, eta gauza bera egitea jabari publikoko, zortasun eta afekzio zonetan jarduteko arauak betetzeari eta errepideen zaintzari dagozkionekin ere, Errepideei buruzko Foru Arauarekin bat etorri.

n) Gasolina zerbitzuguneak jartzeko emakidei eta baimenei buruzko espedienteak proposatzea eta haiei buruzko txostenak egitea.

o) Bere eskumenen esparruan, ondoko prozeduren espedienteek txostenak egitea eta ebaizpena proposatzea: proiektuak jendaurrean azaltzeko prozesuak, kontratu erreklamazioak, ondare erantzukizuneko erreklamazioak, bideetako jabari publikoa mugatzea, foru errepideen zaintza egoeraz eta bideragarritasunaz egiten diren eskaerak, erreklamazioak edo errekerimenduak, eta administrazio errekurtsioak.

p) Errepideak Kontrolatzeko Zentroaren jarduna gainbegiratzea, bermatuta ukitutako unitateek beharreko informazioa eta laguntza eduki ditzatela.

q) Sailari atxikitako sozietate publikoei agintzen zaizkien bide azpiegituren obrak eta proiektuak gainbegiratzea, aginduan ezarriz gero.

r) Bide ondarea, errepideetako seinaleak eta zerbitzu osagarriak zaintzea eta mantentzea, eta errepideak neguan erabili ahal izateko estrategiak proposatzea eta koordinatzea, trafikoaren kalitatea, segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

s) Saileko titularrak kanpaina bakoitzerako onartzen duen Arabako Errepide Sarea Zaintzeko Plana (lehentasunezko intereseko, oinarritzko, eskualdeko, tokiko eta auzoko sareak) proposatzea, zuzentzea, kudeatzea eta koordinatzea, bai eta errepide sarea mantentzeko eta zaintzeko estrategiak proposatzea eta koordinatzea ere.

t) Ohiko zaintzako, aldizkako zaintzako, birgaitze eta birjarpeneko eragiketak eta bidezaintzako eragiketak proposatzea, kudeatzea eta koordinatzea, bai eta errepideen ingurunea zaintzeko eta mantentzeko jardunak ere.

u) Zaintza integraleko kontratuen garapena gainbegiratzea, sarearen beharrianetara egokitzen direla ziurtatzeko.

v) Bidezainen lantaldeen lana gainbegiratzea, kudeaketa zuzena aginduta daukan Foru Sareko errepideen funtzionaltasuna, zaintzea eta mantentzea bermatzeko betiere.

w) Bide azpiegituren eta zaintze proiektuak eta obrak teknologietan, arau teknikoetan eta materialetan gertatzen diren berrikuntzetara egokitzea, aztertu ondoren.

x) Koordinatzea herritarrentzako arreta bide azpiegituren arloan eta harremanak beste erakunde publiko eta pribatuekin.

10. artikulua. Errepideak Hobetzeko Atala

Errepideak Hobetzeko Atalak eginkizun hauek dauzka:

a) Foru Aldundiaren errepide sarea hobetzeko proiektuak eta obrak egitea, zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

b) Bide sareari buruzko obren proiektuak artxibatzea.

c) Udalekin eta administrazio batzarrekin lankidetzan aritzea, Foru Aldundiaren errepide sarea hobetzeko programetan dauden proiektuak egiteko eta gauzatzeko.

d) Planeamendurako azterlanak garatzea, Arabako Errepideetako Plan Integralaren jarduketei dagokienez; horretarako, beharrezkoak diren agiriak egingo dira, bai aurreproiektuari buruz bai oinarritzko azterlanei buruz.

e) Hiriko planeamenduari eta/edo sektorekoei buruzko txostenak egitea, lehenengo aldiz egindako proiektuak izan, zein aldaketak edo hobekuntzak izan.

f) Topografia Atalarekin lankidetzan, txostenak egitea bideetako jabari publikoaren ondarearen mugaketa dela eta egiten diren eskaerez, erreklamazioez eta errekerimenduez, bai eta desafektatu beharreko errepide tarteetako ondare balorazioez ere.

g) Ingurumenari eta zaratari buruzko legerian ezarritako eraginak (habitat zatitzea, zarata...) murrizteko azterlanak egitea.

h) Planifikatuta, proiektatuta edo garatzeko bidean dauden proiektuen eta obren berri ematea Bide Segurtasun eta Ustiatze Atalari.

11. artikulua. Bide Segurtasun eta Ustiatze Atala

Bide Segurtasun eta Ustiatze Atalak eginkizun hauek dauzka:

a) Foru Aldundiaren errepide sareari eta zirkulazioari buruzko informazioa eguneratzea eta ustiatzea, eta ukitutako unitateei horren berri ematea.

b) Estatistika, simulazio eta prospektibari buruzko azterlanak egitea.

c) Errepideei buruzko Foru Araua betetzeari buruzko txostenak egitea, errepideak erabiltzeari eta ustiatzeari dagokionez.

d) Errepideen zaintzaren inguruko espedienteak aztertzea, kudeatzea eta kontrolatzea, 9) f, 10) h eta 13) i artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik jasotako txostenak aintzat hartuta.

e) Arabako Errepide Sarearen katalogoa mantentzea eta eguneratzea, bai eta sarearen ez-augarrien inbentarioa ere.

f) Errepideak Kontrolatzeko Zentroa kudeatzea, koordinatzea eta ustiatzea.

g) Istripuei buruzko azterketak egitea, zein bide zatitan biltzen diren ikusteko; era berean, istripu horiek murrizteko neurriak proposatzea, garatzea eta kontrolatzea.

h) Azterketak, proiektuak eta obrak egitea eta kontrolatzea, errepideen azpiegitura hobeto ustiatzeko, erabiltzeko eta zaintzeko.

i) Sareko errepideen zaintza eskumenak baliatuz, Bidezaintza Atalari jakinaraztea Foru Sareko errepideen zaintza edo zerbitzua narriatzen duten gorabehera eta akats guztiak.

j) Errepideko garraio berezirako baimenei buruzko txostenak egitea.

12. artikulua. Topografia Atala

Topografia Atalak eginkizun hauek dauzka:

a) Proiektuak egiterakoan, Sare Geodesikoaren erabilera planifikatzea.

b) Errepideetako proiektuetan beharrezkoa den Zuinketa Oinarrien Oinarrizko Sarearen ezarpena zuzentzea.

c) Errepideetako proiektuetan beharrezkoa den kartografia eta topografia aztertzea, aukeratzea, tratatzea eta ustiatzea.

d) Kartografia eta topografia gaiei dagokienez, errepideetako proiektuak idazteko laguntza teknikorako kontratuak esleitzeko agirian jaso beharrek baldintzak idaztea.

e) Errepideetako proiektuen geometria eta zuinketa aztertzea eta kontrolatzea.

f) Errepideetako obren geometria eta neurketa analitikoak betetzen direla frogatzea eta kontrolatzea.

g) Errepideetako proiektuak eta obrak egingo dituzten enpresa esleipendunak erabiltzen dituzten topografia ekipoak kontrolatzea.

h) Obra publikoei dagozkien proiektuetako lurzatien planoak zuzentzea eta kontrolatzea, bai eta obrak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda ere.

i) Zerbitzuaren buruak eskatutako txostenak, balioespenak eta peritu txostenak egitea, atalak dituen eskumenen barruan.

j) Laguntza teknikoa ematea idatzi eta gaurkotzean plangintza eta garapen tresnak, hala nola Errepideen Plan Integrala edo Zarata arloko Ekintza Plana, atalak dituen eskumenen barruan.

k) Parte hartzea foru aldundi honetan ezarritako Informazio Geografikoko Sistemetan eta Datu Espazialen Azpiegituretan sartutako informazio geoerreferentziatua ekartzean eta mantentzean, errepideekin edo sailaren berezko gaiekin lotura duten gaietan.

13. artikulua. Bidezaintza Atala

Bidezaintza Atalak eginkizun hauek dauzka:

a) Kanpaina bakoitzari dagokion Foru Aldundiaren Errepide Sarea Zaintzeko Plana burutzea eta kontrolatzea.

b) Atalaren eskumenekoak diren proiektuak eta obrak egitea, zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

c) Foru Aldundiaren Errepide Sarea zaintzeko eta mantentzeko jardueri buruzko proposamenak egitea, Zaintzeko Planetik abiatuta.

d) Errepideen foru sarearen zaintze egoera aztertzea.

e) Neguko Bidezaintza Plana egin, kudeatu eta kontrolatzea.

f) Bidezainen lantaldeak antolatzea eta zuzentzea, kudeaketa zuzena aginduta daukan Foru Sareko errepideen funtzionaltasuna, zaintzea eta mantentzea bermatzeko betiere.

g) Zaintze Integralerako indarrean dauden kontratuak kontrolatzea.

h) Udalekin eta administrazio batzarrekin lankidetzan aritzea, auzoko sareen laguntza programetako proiektuak egiteko eta burutzeko.

i) Planifikatuta, proiektatuta edo garatzeko bidean dauden proiektuen eta obren berri ematea Bide Segurtasun eta Ustiatze Atalari.

14. artikulua. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Sailaren gastuen eta diru sarreraren aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea eta proposatzea.

b) Aurrekontuaren aldaketak eta egokitzapenak prestatzea eta kontrolatzea, aurrekontuen arloko indarreko araudiarekin bat etorriz.

c) Aurrekontu kredituak kontrolatzea eta kudeatzea, gastuak eta diru sarrerak kontabilizatzea, aurreikustea eta aurrekontu gauzatzearen jarraipena egitea. Baliabideak optimizatzeko neurriak proposatzea eta erabakitze ahala dutenei jakinaraztea. Kudeaketa txostenak egitea.

d) Sailaren planak eta obrak koordinatzea, haiei buruzko txostenak egitea eta finantzen eta aurrekontuaren aldetik kontrolatzea, eta beste erakunde edo entitate publiko zein pribatu batzuekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak kontrolatzea, kudeatzea eta jarraipena egitea.

e) Sailaren eskumeneko gaien inguruko azterlan ekonomikoak, estatistikak, bideragarritasun azterlanak eta ekonomia eta finantzen aldeko aurreikuspenak eta aurrekontu aurreikuspenak egitea.

f) Desjabetzeen, garraioen eta errepideen gastu espedienteak kudeatzea ekonomiaren, administrazioaren eta kontabilitatearen aldetik. Informazioa mantentzea, ordainketen kontrola. Negozioen balorazio ekonomikoa, lortu gabeko irabaziak. Garraioen arloko kostuei eta kudeaketari buruzko azterlan ekonomikoak.

g) Finantzen plangintza proposatzea, sailen ordainketa aurreikuspenei buruzko 2082/1993 Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz.

h) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin eta gainerako organo ikuskatzaileekin edo kanpoko auditoreekin koordinatzea eta harremanak edukitzea.

i) Zuzendaritzarekin koordinatuta eta lankidetzan aritzea Batzar Nagusiek eskatzen dituzten erantzunak eta/edo agerraldiak izapidetzen eta prestatzen.

j) Informatika Zerbitzuarekin elkarlanean, saila mekanizatze eta informatizatze ekintzak aztertzea, proposatzea eta ezartzea. Sailaren web orriko edukiak kudeatzea.

k) Sailaren lanaren inguruko argitalpenak eta ikus-entzunezkoak prestatzea eta argitara ematea.

l) Saileko zerbitzuek behar duten bulego materiala erosteko izapideak egitea.

m) Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzea bere zuzendaritzaren ardurako gaitan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu onarenak, aurreikusitakoaren arabera.

n) Gainerako zerbitzuekin elkarlanean, datuak lantzeko egitasmoak eta Datu Pertsonalak Babesteko Legearen arabera babes berezia duten fitxategiak kudeatu, gainbegiratu eta koordinatzea.

15. artikulua. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoa

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoak eginkizun hauek dauzka:

a) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eskumeneko kontratazio espedienteak izapidetzea, kudeatzea eta horien jarraipen administratiboa egitea.

b) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren ondare erantzukizuneko espedienteak kudeatzea, bideratzea eta izapidetzea.

c) Errepideen zaintzaren arloko zehapen espedientei hasiera ematea eta izapidetzea.

d) Sailaren eta beste erakunde publiko zein pribatuen arteko lankidetzak hitzarmenen eta kontratuen formulak prestatzea eta izapidetzea, saileko zerbitzuen proposamenen eta sailaren jarraibideen arabera.

e) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eskumeneko gaitan, errepide kontuetan jarritako administrazio errekursoei buruzko ebazpenak ematea, bai eta baimendu gabeko erabilerak bertan behera uzteko edo eteteko aginduak ere.

f) Zerbitzuguneak jartzeko emakidei edo baimenei buruzko espedienteak izapidetzea.

g) Foru Aldundiaren errepideak nola dauden jakiteko egiten diren eskaerei, erreklamazioei edo errekerimenduei buruzko espedienteak izapidetzea.

h) Arabako Foru Aldundiaren errepideetan kalteak eragiten dituzten hirugarrenei egindako erreklamazioen administrazio espedienteak izapidetzea, fase guztietan.

i) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eskumeneko izanik, organo eskudunek ebatzi beharreko gaiak eta espedientei buruzko foru dekretu, foru agindu eta proposamenak aztertzea, prestatzea, izapidetzea eta artxibatzea; honetatik salbu daude zerbitzuek eurek dekretu honetan emandako eginkizunen arabera zuzenean izapidetzen dituztenak.

j) Sailaren eskumeneko gaien inguruko gutunak jasotzea, erregistratzea eta banatzea.

16. artikulua. Lege eta Administrazio Zerbitzua

Lege eta Administrazio Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Administrazio errekursoei buruzko txostenak egitea eta desjabetzeen arloko epaiketetan defentsa egitea.
- b) Arautegiari eta sektoreko legeriari buruzko agirien azterlanak egitea, irizpenak ematea eta horiek eguneratzea.
- c) Sailaren eskumeneko foru arauen proiektuei buruzko txostenak egitea.
- d) Zeharkako kudeaketa erregimenean dauden errepideei buruzko txostenak egitea, bai eta erakunde autonomoek duten parte hartzeaz ere, hori egiteko eskatzen zaionean.
- e) Sailaren eskumeneko gaietan txosten juridikoak egitea, hori egiteko eskatzen zaionean.
- f) Beste sail batzuek hala eskatzen dutenean, desjabetze espedienteak izapidetzea eta aholkuak ematea izapide horiek garatzeko gaitasun teknikorik eta juridikorik ez daukaten udalei.

17. artikulua. Desjabetze Atala

Desjabetze Atalak eginkizun hauek dauzka:

- a) Onura publikoko proiektuak burutzeko eskuratu behar diren lurzoruen prozedurak abian jartzea eta kudeatzea.
- b) Desjabetze espedienteak ebatzea tasazio bateratuaren bidezko prozeduraren bitartez.
- c) Desjabetze espedienteak izapidetzea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearekin bat etorritik, ohiko zein presazko prozeduraz.
- d) Eragindako ondasun eta eskubideen katastroa eta erregistroa egiaztatzea.
- e) Prezio orria egitea.
- f) Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiaren aurrean izapidetu beharreko espedienteak prestatzea, bai eta auzitegi arruntetan eta administrazioarekiko auzi bidezkoetan aurkezten direnetan ere.
- g) Onura publikorako izango diren lurrak eskuratzean parte hartzea, beste erakunde batzuekin.
- h) Desjabetze espedienteetako eraginpeko ondasun eta eskubideen balioespina egitea sailaren beraren gaietan, eta beste sailtako eta Arabako Lurralde Historikoko erakunde publikoetako espedienteetakoena.

III. KAPITULUA**MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZUZENDARITZA****18. artikulua. Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza**

1. Mugikortasun eta Garraio zuzendariari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 75. artikuluan eta kidekoetan zuzendariari esleitzen zaizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan arautegiak egozten dizkion beste guztiak ere, aurreko 5. artikuluan ezartzen diren bezala.
2. Gainera, Mugikortasun eta Garraio zuzendaria eskumen zehatz hauek ere badauzka:
 - a) Kohesio soziala eta lurralde oreka ekarriko dituen mugikortasun politika bermatzea.
 - b) Garraio arloko politika zuzendu, ezarri, planifikatu, koordinatu, jarraitu eta kudeatzea, zuzentarauak ezarritik. Zuzentarau horien arabera, foru eskumenak burutuko dira errepide garraioaren arloan.

- c) Garraiobide guztiak koordinatzea eta garraiorako erabilitako azpiegiturak sustatzea.
 - d) Garraio lineako zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuen zuzendaritza gainbegiratzea.
 - e) Garraioaren arloko sozietate kudeatzaileak koordinatzea Arabako Lurralde Historikoan.
 - f) Aldundiko beste sail batzuen eta erakunde publikoen arteko harremanak koordinatzea.
- Hori guztia dekretu honen arabera zuzendariak dauzkan eskumenen arabera egin behar du.

3. Gainera, Mugikortasun eta Garraio zuzendariak eskumen zehatz hauek ere badauzka, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren eginkizunen deskontzentrazioa dela bide:

– Honako garraio mota hauetarako baimenak ematea, deuseztatzea, ikusonestea, etetea eta birgaitzea: salgaiak garraiatzeko garraio pribatu osagarria, salgaiak garraiatzeko garraio publikoa, bidaiariak garraiatzeko garraio publikoa eta eskatu ahalakoa, eta garraioaren jarduera osagarriak.

– Erabilera bereziko garraio erregularrerako (eskolaumeak eta langileak) baimenak eta gehiegizko pisu eta neurrien ziozko garraio berezirako baimenak ematea.

– Baimenak ematea zentro homologatuei gidariak prestatzeko ikastaroak emateko, Gidarien Gaitasun Agiria lortzeko, eta prestakuntza ikastaroak homologatzea; Gidarien Gaitasun Agiria lortzeko azterketen deialdiak egitea eta emaitzak argitaratzea.

– Errepideko garraio arloan zehapenak ezartzeko ahala erabiltzea: zehapen espedienteak hastea eta ebatzea.

19. artikulua. Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Aldundiaren errepideko garraioaren arloan dauzkan eskumenak baliatuta ezartzen diren garraioaren arloko politika aztertzea, ezartzea, koordinatzea eta kudeatzea.

b) Sustatzea pertsonen mugikortasunaren eta salgaien garraioaren kudeaketa iraunkortasunari eta segurtasunari eta irisgarritasuna hobetzeari begira, eta horiei buruzko txostenak egitea.

c) Beste administrazio, erakunde eta organismoen garraio planak, programak eta antolamenduak batu, horiei buruzko txostenak egin eta sailaren eskumenen arloan bidaiarien garraio publikorako planak eta programak proposatzea, azterketa tekniko eta ekonomikoarekin batera.

d) Proposatzea errepideko bidaiarien zerbitzu publiko erregularrak sortu, kontzesioa eman, batu, zabaldu, tinkotu, kendu, konbinatu eta erreskatatzea, Arabako Foru Aldundiaren eskumen denean, eta horiei buruzko txostenak egitea, eskumena izan ez arren eragina dutenean Arabako Lurralde Historikoan.

e) Azterlanak eta proiektuak egitea ezartzeko eta ustiatzeko garraio azpiegiturak eta ekipamenduak, beharrezko diren inbertsioak ebaluatzea eta proposatzea, eta proiektuak zuzendu eta burutzea.

f) Garraio publikoko sareko lineen inbentarioa eta berari lotutako elementuak (ibilbideak, zerbitzuak, geltokiak, ordutegiak, sarritasunak...) egin, ustiatu, kudeatu eta mantentzea kasuan kasuko GIS pean, eta bere bilakaera historikoa eta badauden kontzesioen inbentarioa egitea, estatistikak sortzeko.

g) Bidaiarien garraio publikoaren tarifa sistema, txartel sistema eta dirubilketa ereduak aztertu, ebaluatu eta horiei buruzko txostenak egitea, bai eta zerbitzu erregularren tarifak onartzea ere.

h) Garraio publikoaren komunikazio, zabalkunde eta sustapen kanpainak programatu, egin eta gainbegiratzea.

i) Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien garraio publikoaren erakunde arteko koordinazio erakunde sortzeaz txostena egin eta proposamena egitea.

j) Garraio publikoaren sarean sartu beharreko edonolako aldaketa aztertu eta ebaluazio tekniko, funtzionala, ekonomikoa eta finantzeroa egitea, bai eta izapidetzea ere eskumen propio diren linea erregularrak eman edota aldatzea, eta txostenak egitea eskumeneoak izan ez arren Arabako Lurralde Historikoan eragina dutenei buruz.

k) Arabako Foru Aldundiarenak diren linea lagunduen bidez erabilera orokorrerako ematen diren bidaiarien garraio publikoko zerbitzuen kudeaketa, egiaztatze, informazio eta kontrol metodologia finkatu, garatu eta ezartzea (gaur egun kontratu-programak). Kontrolatzea lortutako dirua, emandako zerbitzua, kostu, diru sarrera eta defizitaren urteko aurreikuspenak egitea, eta ordainketak likidatzea.

l) Arabako salgaien garraioaren estatistikak egin, ustiatu eta mantentzea, eta kamioien aldirietako aparkaleku berrien beharizanei buruzko txostenak egitea.

m) Euskadiko Garraio Agintaritzan, Arabako Lurralde Historikoko Taxiaren Batzordean eta sailaren garraio eskumenei lotutako foro, batzorde eta erakunde guztietan landu beharreko gaiak aztertzea, proposatzea eta haiei buruzko txostenak egitea.

n) Garraio Zerbitzuaren eskumen arloarekin zerikusia duten jardueretarako dirulaguntza programak kudeatzea eta izapidetzea, funts publikoak behar bezala aplikatzen direneko jarraipena eta kontrola eginez.

o) Garraio lineako zerbitzu publikoaren kudeaketa zerbitzuen kontratuen zuzendaritza eramatea.

p) Koordinatzea herritarrentzako arreta politika eta beste erakunde publiko eta pribatuekiko harremanak.

20. artikulua. Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzua

Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Bidaiarien eta salgaien garraiorako eta garraioko jarduera osagarri eta laguntzaileetarako baimenak kudeatzeko beharrezko diren izapideak egitea, sailari badagokio horiek ematea.

b) Zerbitzuak eta/edo indarreko legediak garraio jarduera betetzeko eskatzen dituen txostenak, egiaztagiriak eta agiriak egitea.

c) Sortzea, mantentzea eta ustiatzea Arabako Garraiolarien Erregistroko eta Arabako Arau Hausleen Erregistroko datu baseak eta horien eta Arau Hausleen Erregistro Orokorren eta beste administrazio batzuen erregistroen lotura.

d) Administrazio unitatean eta Garraio Zerbitzuan kudeatutako tasa eta prezio publikoak aldatzeko eta gaurkotzeko proposamenak egitea, bai eta horiek kobratzeko kudeaketa egitea ere.

e) Takografo digitalaren txartelak kudeatzea eta izapidetzea.

f) Gidarien Gaitasun Agiria kudeatzea.

g) Arabako Lurralde Historikoaren Ikuskaritza Plana proposatu, egin, zuzendu, jarraipena egin, kontrolatu eta burutzea, eta koordinatzea gainerako administrazioen beste plan eta erakundeekin.

h) Atalak sustatutako espedientei aurkezten zaizkien ebazpen eta jardueren kontrako administrazio errekurtsioen ebazpenak proposatzea.

i) Baimen arloan, eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik hasitako espedienteen ebazpenak proposatzea.

j) Arabako Foru Aldundiaren eskumen den garraio arloan aplikagarri den araudia ez betetzeagatik zehazpen espedienteak ebazteko proposamenak izapidetu, bideratu eta egitea.

k) Garraio arloko indarreko araudia ez betetzeagatik zehapen arloan aurkeztutako errekursoak ebazteko proposamenak egitea.

l) Atalak izapidetutako zehapen espedienteen ondoriozko betearazte ordainketa izapidetzea.

m) Arabako Garraio Arbitrajerako Batzordearen egitekoak planifikatu, kudeatu eta egitea.

n) Atalari dagozkion gaien arloan obrak, hornidurak, azterlanak, zerbitzuak eta laguntza teknikoak kontratatzea sustatzea, kontratazio espedienteen izapidetzean eskatzen zaion laguntza teknikoa ematea eta kontratuen burutzapena zuzentzea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

a) Kanpoan, gaixorik, aldi baterako ezinduta edo abstenituta edo errekusatuta dauden zuzendariak ordeztzeko araubidea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 24ko 43/2019 Foru Dekretuak, foru aldundi honetako sailetako zuzendariak ordezkatzeko araubidea onartzen duenak, edo haren ordezkari arauak ezarritakoa izango da.

b) Administrazio unitateen arduradunak aldi baterako ez badaude edo egon ezin badute, uztailaren 31ko 82/1997 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, buru duten zuzendaritzako arduradunak erabakitzen duen hark beteko dituen haien eginkizunak. Berariaz zehaztu ezean, eginkizun horiek unitatean administrazio kategoriarik altuena daukan langileak beteko dituen eta langile bat baino gehiago izanez gero, antzinatean handiena duenak.

Araudi propioa duten kasuak salbuetsiko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu honetan zuzendariari ematen zaizkion eskumenak gaiaren arabera kasuan kasuko zerbitzuan utzi ahalko dira.

Eskuordetzea egiteko eskumenaren titularrak ebazpena eman beharko du, honako hauen arabera:

– Eskuordetzea ematen duen ebazpenean noiz artekoa izango den jarri beharko da.

– Ebazpen hori ALHAOn argitaratu beharko da.

– Eskuordetzen diren eskumenak ezin izango dira berriro utzi sailaren beste organo batzuen eskuetan.

– Eskuordetzearen indarrez hartzen diren ebazpenek berariaz jaso beharko dute hala izan dela eta eskuordetzea eman duen organoak eman balitu bezala hartuko dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 18.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoak lanpostuen zerrendan eragiten dituen aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskuduna den erakundeak jasoko ditu, lanpostuek unean une duten egoerari buruz aldizka eguneratzen den informazioa daukan agiri batean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren antolamenduari dagokionez, indargabetuta geratzen dira dekretu honetan jasotzen diren xedapenen aurka doazen aurreko xedapen guztiak.

Zehazki, indargabetuta geratzen da Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretua, baita bertan ezarritakoaren aurka doazen xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Onetsi eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ SAN VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ